

# BERTAN GELDI

Fernando Artola «Bordari»

Ausartuko al da iñor, itz eta izenen sorkunak euskaldunai ematen dizkigun buruauste ta griña ukatzera? Ezetz esango nuke. Gaurko giroan beintzat, tutik ez dakienak, ni barruan sartzen naizela, maixu bezela erabakitzen ditugu itzen sorkunak. Odolean daramagu abea. Jakiña; Aitzkorri, Izarraitz, Aizabe, Jaizubi ta onelakoak asmatu zituena, euskalduna izan. Aitonon joera ta antza eukitzea ez da, bada, arritzeko, ta «moko-fiñak» geranez, bereala bereizten ditugu, ustez beintzat, atze edo arrotz-kutsu duten ainbeste itz. —Gizona, gizona; zu, ainbeste dakizuna, ta, nolatan esaten duzu telefonoa? —Egiazabal deiturak «verdad-ancha» esan naiko du, noski?, aldamenetik besteak. Zer erantzun? Bai, bai, adiskide, bai, ta Gonzalez'ek gonazale! Bein batean, euskera besterik etzekiten gizonezko batzuek idoro nituen argurioan. Denak baserritarrak; oro ondarribitarrak, Jaizubitarrak ain xuxen. Zera zion batek: Berak bere aitonari entzuna omen: Jaizkibel'ek «gaitzgibel» esan nai zuela: larre-beiak gibleko gaitzarekin iltzen zirelako; eztakit nolako belarra ugari zegola gure mendian eta. Esan nien, ezetz; oiñ-oiñekoa zuela antziñako Olearso'k «Jaiz» itza, goian aipatu ditudan euskaldunak asmatutako itzak bezela, ta dakitenak beste zentzuna ematen ziela; bestalde, ori orrela balitz, «Gibel-gaitz» deituko liotekela. Bai, zera! Belarri batetik sartu, bestetik atera. Zoaz zu, ondo erroturik dagon zuaitza, aitona landatua gaiñera, itzetik-ortzera, aizexka batekin botzera. Kaletarrak esan bear guri!

Aurrera jarraitu baiño len esan dezadan, itz berriak ez didatela miñ geiegi ematen. Lege-arauzkoak baldin badira, jakiña. Miñ geiago ematen didate txarkeriz darabiltzkiten ez-bearrezko erderakadak. Edo ta, jakintsuak koskaduraz (?), konposatu idaztea; atondu, osatu, tajutu, antolatu ta onelakoak erabilli bearrean. Ez dutela gauza bera esan nai? Ortan ez naiz metitzen; «antolatu» itza erriak errexago jasoko duela bai, esango dut. Badakit, ondo jakiñ ere, ustez euskal itza dana



Pasaia, Errederi, Oiarzun, Irun... Ondarribira etortzearekin ez dute iñora alde egiten. Bertan geldi egiten degu

askotan erderakada uts-utsa besterik ez dela. Begira; aurtzarroan, eskolara «esterratatik» joaten giñen geienetan; baloika genbiltzenez «panttoka» on bat nun arkituko arduratzen giñen. Noizpait gero ikasi genuen «pagoa» «fagus»'tik datorrela. Agur! nere itz goxoak; «esterrata» mundu guztiko «street» duk; «panttoka» = pantoque, ta millaka onelako! Bai, euskera, bizirik dirauten izkuntza guziak bezela, itz asko bestenetik artu-ta bizi da. Aatik, gero konturatu nintzen «erregia gaztelania ez dela. Adi! — Dicen que pronto viene la erregia, esan nion. —Qué es eso, galdetu zidan avilatarrak. Beraz, erdera ezpada, euskera izango duk. Bai, musean erregerik gabe gaizki gabiltz; ta «lru errege datoz kale nagusitik». Batño ere aski bai nuke»; zion bere kantuan iru tatxa zeuzkanak. Nijoan bidera.

Nun ote da Ptolomeo'ren Easo? Eta, Estrabon'en Idanusa edo Oidasuna? Ta, Plinio'ren Olarso? Luze idatzi liteke arazo ontaz; jakintsuak badaukate nun arakatu. «Arsu» baserri eder ta galantak, oraindik ba-dirau, bere armari ta guzti. «Artzu», gaur esaten dugun bezela, arritsutik omen dator; izan ere Olearso'k

«Armunu» ta «Arrobi» ugari ditu... Ta puzka-puzketa, bati kendu, besteari eman (errege-kontuak) Donostia'ri 1150an, ta Ondarribiari 1203 garrenean, «vallem quoe dicitur Otarzu» ttipitzen zijoan. 1320 garrenean, berriz, Errenderik ain xuxen, «el lugar de Oorereta, ahora Rentería, obtuvo el título de Villanueva de Oiarso. Zertan gabiltz; ez al giñan guztiok Oiarzuar? Ez al gera danok Olearsotarrak? Eta, Oeaso ta Oiarso izen oriek nork emanak? Ta, nun da Magrada ibaia? Berau ote da Manlasco? Arditurri ta Andrearriaga, euskel izenak dirana garbi ikusten da, etimologista izan gabe ere. Erromanoak joan ziren; guk bertan geldi egin genduen. Or daude Urantzu zarrean, Ama-Xantalen inguruan, giza-gorpuzkinak, erraustuak, noski. Or dago Higer munoan, ur-pean, erromatarren ontzitzar bat; bertatik jasotako suil, pegar eta erratilluak, geienbat puzkatuak (puzkak, osoak aatik) aski pollitak ikusi ditut. Bai, erromatarrek joan ziren.

Eta aurtengo «OARSO»'ren galderari erantzunaz, zer esango dut? Bidasoa or dabilla, beti bezela, ur-karrio. Gure Olearso'k itxas aldetik oraingo aldaketa aundirik ezpadu ere, ta, bertan amaikagarren gizaldian gertatzen zena ezpada gertatzen..., zeren; «San Miguel de Excelsis enviaba sus ganados a pastar a los yermos de Fuenterrabía», «en el término clamado Jog, e los seles que se claman Muginça, Adialove, Gaiztanoz, Leyurieta, Leinçanavar...».

Batzuen izenak errez arkitzen dire orain ere. Ia, oarsotarrak aieka oriek nun duten toki billatzen saiatzen geran!

Onerako edo txarrerako, sortaldeak egin du aldaketa izugarria. Dalako «Golf del Jaizkibel» orrek, berebiziko argitasuna eman dio. Nunai etxe apain eta garestiak. Agur! ordea, Iparragirre'k Endaiatik ikusi zituen baserri txuri-txuriak! Laister bat ez da geldituko! Egizu negar, irakurle. Gañontzean, ondartzan ez dezu, naiz aundi ta zabala dan, tokirik idoroko. Arrokak, landak, bideertzeak, piñadiak, dana jendez betea, eguraldi garbietan; eguzkia eder denian.

Gu, Ondarribitarrak atera? Nora? Danok onera datoz eta!

Ondarribia aunditzen dijoa. Len ez bezela, gaur probintzianoak euren etxea badute emerí. Ta, gu kontent ainbestez.

Ta, Errenderiarrak nora joaten ote? Aal dakizute berrogeitamar'etik pasiak izango dirala bertako sendiak, emen etxe-bizitza, bigarrengo etxe - bizitza geienetan, daukatenak?

Ta, pentsamen bat etorri zait burura. Pasaia, Errenderi, Oiarzun, Irun eta Ondarribi, Oarsotarrak geranez; ba, Ondarribira etortzearekin ez dutela iñora alde egiten. BERTAN GELDI egiten degu guztiok.